# BESTELAKO XEDAPENAK

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## 3973

*EBAZPENA, 2025eko irailaren 9koa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez itsas kultura-ondarearen garrantzia nabarmentzeko dirulaguntzak ematen baitira 2025. urtean.*

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2025eko maiatzaren 21eko Aginduaren bidez (ekainaren 2ko EHAA, 102. zk.), itsas kultura-ondarearen garrantzia nabarmentzeko 2025eko ekitaldiko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egin zen.

2025eko irailaren 8an, Kultura Ondarearen zuzendariak ebazpen-proposamena egin zuen, aipatutako aginduan ezarritako balorazio-irizpideak, eta jasotako eskabideak baloratzeko eratutako balorazio-batzordeak egindako aktaren edukia kontuan hartuta.

Aurrekoa kontuan hartuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Dirulaguntzak ematea I. eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileei, han zehazten diren zenbatekoen arabera.

Bigarrena.– Ebazpen honen II. eranskinean jasotako proiektuei dirulaguntza uko egin zaiela ulertuko da, han zehazten diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Onuradunak dirulaguntzak arautzen dituen aginduak ezarritako baldintzen mendean geratzen dira, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorren mendean ere.

Laugarrena.– Diruz lagundutako jarduera guztiak amaitzeko epea 2025eko abenduaren 31n bukatuko da, dirulaguntza hauek arautzen dituen aginduaren 6. artikuluarekin bat etorriz.

Bosgarrena.– Aginduaren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera ordainduko dira dirulaguntzak.

Emandako dirulaguntzen justifikazioa eta likidazioa egiteko, aginduaren 23. eta 24. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio. Betiere, diruz lagundutako proiektuak justifikatzeko epea 2026ko urtarrilaren 9an bukatuko da.

Seigarrena.– Gastua justifikatu ondoren ordainduko dira agindu arautzailearen kontura emandako dirulaguntzak, dirulaguntzaren indarraldiaren bukaeran eta, betiere, eskatutako agiriak aurkeztu ondoren.

Zazpigarrena.– Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Zortzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 26.2 artikuluak ezartzen duenarekin bat.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, interesdunek ebazpena jaso eta biharamunetik aurrera edo, hala badagokio, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 9a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

I. ERANSKINA

Eskatzaileak eta emandako kantitateak:

| Kodea | Interesduna | Espedientearen izenburua | Eskatutakoa | Emandakoa |
|---|---|---|---|---|
| 1. lerroa | | | | |
| 036-IKO-2025 | Asociación Itsas Gela aula del mar | MATER Mejoras en musealización 2025 | 16.500,00 | 10.368 |
| 024-IKO-2025 | Ayuntamiento de Bermeo | Ortube atunontzia | 30.423,41 | 19.374 |
| 030-IKO-2025 | Fundación Museo Marítimo Ría de Bilbao | Pesquero Nuevo Anchustegui. Trabajos de puesta a punto para su exposición (Línea 1 D) | 14.046,00 | 8.959 |
| 031-IKO-2025 | Fundación Museo Marítimo Ría de Bilbao | Yate Kataka II. Trabajos de puesta a punto para su exposición. Cubierta protectora | 15.212,54 | 6.628 |
| 032-IKO-2025 | Fundación Museo Marítimo Ría de Bilbao | Pesquero Nuestra Señora de Lindes. Trabajos de puesta a punto para su exposición | 9.075,00 | 4.292 |
| 020-IKO-2025 | Hondarribiko kultura ondarearen zaintze eta hedatzerako Arma Plaza | Puesta en valor de Mariñel Hondarribia | 10.000,00 | 6.560 |
| | | | 95.256,95 | 56.181 |
| 2. lerroa | | | | |
| 012-IKO-2025 | Albaola Asociación para la difusión del patrimonio cultural del mar | Ozentziyo Obras y elementos de seguridad y acceso | 30.000 | 20.223 |
| 015-IKO-2025 | Albaola Asociación para la difusión del patrimonio cultural del mar | Mantenimiento Juanita Larando | 12.000 | 8.134 |
| 035-IKO-2025 | Asociación Itsas Gela aula del mar | MATER Puesta a punto 2025 | 17.831,25 | 11.621 |
| 022-IKO-2025 | Edgar de Pedro | Tanit | 3.560,32 | 1.241 |
| 023-IKO-2025 | Edgar de Pedro | Lucretia | 15.162,87 | 5.261 |
| 027-IKO-2025 | El Gasolino Bidaiak S.L. | Adecuación embarcación «AUPA» | 10.406,00 | 3.999 |
| 028-IKO-2025 | El Gasolino Bidaiak S.L. | Puesta a punto «ERE» | 9.800,00 | 3.766 |
| 038-IKO-2025 | Isuntza Arraun Elkartea | Embarcación histórica «Kulixka» | 10.908,40 | 5.755 |
| | | | 89.864 | 60.000 |
| 3. lerroa | | | | |
| 019-IKO-2025 | Beduaola Untziola Elkartea | Kresala batela konponketa lanak | 1.325,00 | 1.325 |
| 001-IKO-2025 | Enrique Damborenea | San Andrés y Animas | 3.000,00 | 3.000 |
| 017-IKO-2025 | Ignacio Arana Corral | Mantenimiento Sua | 996,19 | 996 |
| 008-IKO-2025 | Iñaki Alcedo | Reparación Poxpoliñe y amarre | 885,54 | 885 |
| 003-IKO-2025 | Iñigo Onaindia | Hiru Ahizpak | 1.759,20 | 1.000 |
| 029-IKO-2025 | Javier Lombana Fernández | Restauracion de la embarcación Bolgen | 2.904,00 | 2.904 |
| 006-IKO-2025 | Joaquin Muñiz | Txirla | 1.173,56 | 1.173 |
| 007-IKO-2025 | Joaquin Muñiz | Talayo | 671,51 | 671 |
| 018-IKO-2025 | José María Zubiaurre Portugal | Reparación y mantenimiento Isturiz 2025 | 1.908,91 | 1.908 |
| | | | 14.623,91 | 13.862 |

| Kodea | Interesduna | Espedientearen izenburua | Eskatutakoa | Emandakoa |
|---|---|---|---|---|
| 4. lerroa | | | | |
| 026-IKO-2025 | Ayuntamiento de Gorliz | Puesta en valor del patrimonio marítimo de Gorliz | 2.516,80 | 2.516 |
| 002-IKO-2025 | Ayuntamiento de Hondarribia | Hondarribia Itsas Hiria | 5.000,00 | 5.000 |
| 034-IKO-2025 | Fundación Museo Marítimo Ría de Bilbao | Publicación del catálogo de la exposición dedicada al pesquero Nuevo Anchustegui | 2.953,22 | 2.441 |
| 025-IKO-2025 | K 6 Gestión Cultural SL | #Kontxa2025 | 5.000,00 | 5.000 |
| 005-IKO-2025 | Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea UZEI | Ontzigintza tradizionala | 5.000,00 | 5.000 |
| | | | 20.470,02 | 19.957 |
| | | Emandakoa guztira: | | 150.000 |

II. ERANSKINA

Ukatutako eskaerak, 14.1.b artikuluak eskatzen duen gutxieneko puntuaziora ez heltzeagatik.

| Kodea | Interesduna | Espedientearen izenburua | <60 puntu |
|---|---|---|---|
| 004-IKO-2025 | Ayuntamiento de Elantxobe | Elantxobe eta arrantza | 38,03 puntu |
| 009-IKO-2025 | Erandioko Auzokideok Erandio Bizirik Elkartea | Boteros en la ría de Bilbao. Historias, actividades y vivencias desde embarcaciones tradicionales de madera. ( Libro ) | 30,00 puntu |
| 016-IKO-2025 | Albaola Asociación para la difusión del patrimonio cultural del mar | Exposición Ozentziyo | 53,00 puntu |
| 033-IKO-2025 | Fundación Museo Marítimo Ría de Bilbao | Publicación de la memoria de actuación en el Nuevo Anchustegui y del diario de documentación de la intervención del año 2024 | 48,00 puntu |
| 037-IKO-2025 | Asociación Itsas Gela aula del mar | MATER Itsaso Bizia_Mejoras en los recursos didácticos | 46,00 puntu |
| 039-IKO-2025 | Erandioko Auzokideok Erandio Bizirik Elkartea | Panel Informativo historia del Servicio de pasaje Erandio – Barakaldo y sus Gasolinos aún mantenidos | 26,00 puntu |